

## DON BOSCO: GAURKO MUNDUAK ETA GAZTEDIAK BEAR ZAITUE!!!

Aurretiaz esan bearrean naukazue, idazlantxo au ondo ulertua izan daiten, kristiñau eta abade nozuela eta fedearen ikuspegitik idatziriko lana dozuela. Beste alderdi batetik, askok jakingo dozuenez, Dn. Boscoren bizitza ain da aberatsa, luzea, zabala, ugaritsua eta sakona... uste dot, idazti onetan, arlo bateri oratzea izango dala egokiena.

Besteko barik, goazen zuzenean arira.

Urte onetan, ain zuzen be 1988'gko Urtarrillaren 31'an «San Juan Bosco»ren eriotzaren 100 urteak betetzen dira. Don Bosco -onela deitzen dautsoe bera ezagutzen eta maitatzen dabena - gaur dirala eun urte joan jakun Jaungoiko Aitagana, berak ainbat eta ainbat bidar predikatu eban zeru ederrera.

Eta orain, labur-labur, kondairari dagokiozan ezaugarri batzuk.

Italiako Piamonteko Becchi erritxoan jaio zan 1815'gko Abuztuaren 16'an. Bere gurasoak Francisco eta Margarita Occhiena izan ziran. Nekazariak. Bakarrrik bi urte zituala aita il jakon eta aurrerantzean bere amaren jakituriz beteriko zaindartzape argitsua bizi izan zan.

1841'gko Ekainaren 5'an, 26 urte zituala, abade egin zan. Gaztaroan asi eta eriotza eldu arte (73 urte zituala) gazteen alde

emon eban bere bizirza osoa.

1865'gko Otsaillaren 19'an Salestarren edo Salesianoen Anaidia onartu cutsan Pio IX'gnak. Aldi berean, «Hijas de María Auxiliadora»ren lekaimegoa be sortu eban.

1876'gko Maiatzaren 9'an «Cooperadores Salesianos» deritxoen anaidia sortu eban.

Eta gaur zer? Don Boscoren seme-alabak, zer egin dabe gaurdaiño? Paulo VI'gnak, Aita Santu jator eta sakonak, auxe esan eban Salestarren Anidiaren zabalkundea ikusirik: «Duda bariarik esan daikegu Salestarren Anidiaren zabalkundea guztiz arri-garria dala». Itz onein egia zenbakietan ikusi dagigun:

Leenengo ta bein, gaurko salestar guztien Nagusiari, Dn. Egidio Viganori, galdera au egin eutsan kazetari batek: «Jaun agurgarria, zeintzutan eta zenbat erri edo lurraldeetan zagoze zabaldurik? Eta apaltasunez beterik eta umore on pixka bategaz auxe erantzun cutsan Dn. Viganok: uste dot askoz be laburrago eta errezo dala esatea non ez gagozan».

Eta egia esan, munduak dituan lurraso guztietan daukez euren etxeak.

Gaurko-gaurkoa dan dato bat emotera noakizue: azkenengo zortzi urte oneitan, Afrikako lurrasoan, 31 lurraldeetan sartu eta zabaldu dira Salestarrak. Onez gaiñera, ona emen gaurko egizko datoak:

- Dn. Boscoren espirituan oñarrituz 50.000 pertsona bizi dira mundu zabalean zear euren bizitzak Jaungoikoari eskeinduz.

- Leen aitatu doguzan «Cooperadores Salesianos»ak amarreko millakak zenbatu daikeguz.

- Euren ikastetxeetatik urten dabezan neska-mutillak cundaka millakak dira.

- Munduan dagozan Gotzain, Apezpiku eta Kardenalen artean 80'tik gora Salestarrak dira, Dn. Boscoren semeak.

- España bera be sei probintzietan bananduta daukee. Eta euretariko bat geure Euzkadi maitcan dago finkaturik. Bere ize-na au da: Salestarren Xabier'ko Prantzizkoren probintzia edo eskualdea. Zer artzen dauan eskualde onek Euskadin?: Bizkaia (Deusto, Cruces, Barakaldo), Gipuzkoa (Intxaurren, Urnieta, Errenderi), Araba (Gasteiz, Nafarroa (Iruña, Alzuza). Eta Euzkadi-tik kanpo: Santander, Logroño ta Burgos. Probintzi oneitako Aita Nagusiak Bilbon, Salestarren Deustuko etxean daukaz bere egon leku eta bulegoak. Etxe onetzaz, Deustuko etxeatuz, barri pozgarri bat emon barik ezin egon naiteke: Aurten betetzen ditu etxe onek bere Urrezko Ezteiak. Zorionik beroenak bertako anai guztientzat jazoera ori dala-ta. (Ikusten dogunez, ez da arritzekoa Paulo VI'gnak esan ebana).

Kondairari dagokion laburpentxoia ementxe amaitzen dot. Orain, Dn. Bosco gogoan dodala, gaurko munduari eta bertan bizi dogun gaztediatzaz zeozertxo esatera natorkizue.



Dakizuenez, gure gaurko munduan «increencia»tzaz edo zinesgabetasunatzaz berba asko egiten da. Itz baten esateko, Jaungoikoa itza bera be esateak ez dauka lekurik gizarte onetan. Denborarik ez da alperrik galdu bear zientzia eta teknika mailan sartzen ez diran gauzekin. Orregaitik, Jaungoikoa, erlejiñoa, siñestea eta abar... bazter baten gordeta iztea da biderik egokiena leengo gizon zaarraren ipuiñak eta mitoak diralako. Baiña zelan Jesukristo gure Jaunaren bizitza ulertu-eziña biurtzen jakun Jaungoiko Aitaren gaia kendu ezker... bardin esan daikegu Dn. Boscotzaz bere: ezin dira ulertu Dn. Boscoren bizitza eta ekin-

tzak Jaungoikoa eurrectatik kentzen eta baztertzen badogu.

Askok eta askok diñoc gizona gizon izan daiten eta mundua aurrerabideetan bultzatua izan daiten... Jaungoikoa ilda egon bear dala.

Ez gagozana ados argi dago.

Nor izan da Jesukristo ta Dn. Bosco baiño gizonago? Eta ez ote da izan Jaungoikotasun ori euren egizko gizontasunaren sus-trai eta bultzagille? Zelako munduan biziko ote giñake euren antzekoak izaten aaleginduko bagiña?

Gaur, eta ondo be ondo deritxot, bakoitzak bere duintasuna eta errespetoa eskatzen ditu pertsona lez bere ikuspuntu eta erabakientzako.

Ez aal dozue usten, siñistedunok, pixka bat ausartiagoak izan bearrean gagozala -iñori kalte egin barik- geure iritzi eta jokabideentzat bear dan begirunea eskatuz? Guretariko bakoitzarentzat -kristiñauentzat- Kristorena izatea bada gauzarik ederrrena, zer dala-ta buru ondarpn sarturik bizi? Jesus berberak erakutsi euskun lez jokatu ezkeru, zertan urtengo leuke galtzen gure munduak? Edo-ta ez ote dogu argi ikusten gure munduari falta jakona orixe berberori dala?

Gaur ospatzen dogun Dn. Boscok, oraintxe bertan esan doguzanak egarrituz eta eragiñez bizi izan zan. Aren Anaidiak sortzea, ikastetxeak eraikitzea, irarkolak ipintea, liburuak idaztea, aldizkariak zabaltzea, antzerkiak antolatzea, doiñu eta abestiak egitea, gogo-jardunak eta itzaldiak etenbarik emotea... esan dogun egia orren agerkundeak baiño besterik ez ziran. BENE-TAN, DN. BOSCO GAURKO MUNDUAK BEAR ZAITU!

Eta gaztediari buruz, zer?

Danok dakigu gaurko gazte asko neurribako askatasun batean bizi dirana, atseginiñezko bizitza errez baten ondaturik gaur eta ementxerik oratuz... proiektu barik... etorkizunerako gertau barik...

Baiña... zenbat gabiltz -lagun lez- gazteen artean?


Daukaguzan erakundeak... zelan ardura-tzen dira gazteatzaz?

Onetarako Dn. Boscok iñoana da premiñazkoa: «Maite zai-tuet gazteak zarielako». Egia da, bai, gaurko gazteen artean lan egitea gatxa be gatxa ta gogorra egiten jakuna; baiña maite badozuz... eta etorkizunaren be-laualdiak lez ikusten aalegintzen bazara...

Duda barik esan daikegu Dn. Bosco izan dala eziketa munduan ezagutu izan dogun ezitzaille edo pedago-gorik garrantzi-tsuenetariko bat.

Irukote baten oi-ñarritzen eban Dn. Boscok bere ezikuntza: Adimenean, erlejioan eta maitasunean. (Kontuan izan dagigun denbora areitako go-gortasuna eta zigorra eziketa maillan).

Itz oneik Dn. Boscorenak dira: «48 urte bizi izan dodaz gazteen artean eta ez naz gogoratzen iñoiz iñori zigo-rrik leporatu dautsadanik» Zerk lortu lei onela jokatzek... adimena erabilteak alkarrizketa sakon baten eta benetako maitasu-nak izan ezik? Orrez gaiñera, arazoak Jesusengandik ikusten aa-



legindu ezkeror..

Amaitzeko, benetako cupada bat guraso, irakasle, jakintsu, abade, erlijioso ta gazteen munduan zabiltzazen guztio!

Eta guk, kristiñau garanok, irukote orretan daukagu kristau-etziketaren ardatza ta oiñarria.

Aurrera, bada, itxaropenez beterik. Bideak zabaldua ta ibilliak dagoz. Gure gaztedia Dn. Bosco barri batzuen bearrean dago.

**BENETAN, DN. BOSCO, GAURKO GAZTEDIAK  
BEAR ZAITU!**

**ZORIONAK BERE MAITALE GUZTIOI.**

*Kepa Agirre*